

San Gergoriotan

Euskalerriko toki eta errialde askotan sartuta dagon jaia da San Gregorio'na. Euskaldunentzat san Gergorio.

Izen onetako santu asko agertzen dira santutegian. Maiatzaren bederatzikoa zein?

Erri baten abade gazte bateri deitu eutsen sermoia egitera. Ba eukan fama-txoa inguruetan eta olakoetan nai izaten zan errian eguna ondo eta atsegiñez astea.

Ordu erdi baten jardun eban abadeak kurpilotik berbetan. Bere anditasun, esakera eder, gozo, laban eta txukunez. Etorkizun andiko abadea, bere etorrera ugariak ortarako gaituten ebalako. Bakoitzak bere arrotasun apurtxoa eukiten dau, eta abade a be, meza ostean, eleizpera joan zan, ango gizonen arteko lorak artu naian.

Iñok aitatu be ez bere sermoirik. Danak berba labur, erantzun motz, arpegi zimur eta borondate gitxigaz agertzen ziran bere aurrean.

Parrokia be arrituta egoan ainbeste zurtasun, betozko eta itzaltasunez, batego be alako egun aundi baten. Ez eroian denpora asko parroki aretan, baiña ordurarte danak kontu-kontari eukiten zitulako, zerbait bitartean ba egoala igarri eban.

—Sermoi ederra, ez? itandu eban, ortik zerbait atara eta berba bidea emongo ebalakuan.

Bat batera, zoli urten eban tartetik zarretako baten erantzunak: Ederra? —Kaka— zarra! Gure san Gergoriok orain arte jakin ez dogun beste amaen bat euki al eban?

Eta başerritar zar arek, bertsotan agertu eutsazan sermolariari euren san Gergorio'ren bizitzako gora berak:

*Izar eder bat agertu zan bein
Kapadozi'ko Nazianzo'n,
ume umetan agertu bere
zer izango zan zartzaron,
Konstantinoplan obispo zala
bere antzekorik ez egon,
orixegaitik eleiza santak
ein zuen gure aita-on.*

Sermolaria konturatu zan.

Erri aretako san Gergorio, 389 urtean il zan. Sermolariak erabili ebana, san Gergorio Aita santua zan, 1.085 urtean illa.

Ama batenak izatekotan, Matusalen baiño geiago bizi bearko eban arek. Eta ordurarte olakorik ez eben ikasi berriatuar zarrak.

Gipuzkoa'n, Azpeiti'tik Beasain'era duan bidean. Mandubio gaiñera igo eta andik ezkerretara erri txikitxo bat dago: Astigarreta.

An be san Gergorio izeneko ermita dago eta jaia Etor igandearen (Pentekoste jaiaren) bigarren egunean ospatutean da.

An be, Berriatua'n lez, orio eskintza egiten da, eta ez bere jaiari bakarrik, urte guztian baiño, belarriko minik agertzen ba da.

Ermita aretara joateko, bide egokie-nak, lengo bide zarrak dira, burdibide zarrak.

Asko dira bertatik igaro nai izaten dabenak eta eleizpetik euren amoiña (limosna) barrura jaurti. An goak esaten dakie sekula iñor ez dala ausartu izan diru orreitatik artzen, bertako serorea izan ezik. Olakorik egin ezker, ziurra ei litzake belarriko miña zigortzat jaus-tea.

A. ZUBIKARAI